



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

A. EGITEKOA ETA HASTAPEN PRINTZPIOAK.

A.1. PLANAREN EGITEKOA

2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren egitekoa honako hau da:

Herritarren etxebizitza-premiak osorik atenditzea da, batez ere premia larria duten pertsonena, premia-egoera desberdinei egokitutako neurrien bitartez eta etxebizitzaren alorrean erantzukizuna duten agente guztien parte-hartzearekin.

A.2. PLANAREN HASTAPEN PRINTZPIOAK

- ❑ 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Plana, bi ezaugarri nagusi dituen ingurune batean kokatuta dago: alde batetik, 2002-2005eko Etxebizitza Bideratzeko Planaren testuinguruan garatutako politika eta ekimenei esker EAEn etxebizitzaren alorrean egindako aurrerapen garrantzitsuak; bestalde, egiaztatu da ekindako ibilbideari jarraitzeko ahaleginak egiten jarraitu behar dela, gero eta jende gehiagok etxebizitzako gizarte-politiketarako sarbidea izan dezan ahalbidetzeko jardun berriak bultzatuz eta martxan jarritz.
- ❑ Etxebizitza babestuaren eskaintzaren gehikuntza da 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Plana egituratzen duen helburu nagusia, eta gehikuntza hori hala ikuspuntu kuantitatibotik (etxebizitza babestuen kopurua) nola ikuspuntu kualitatibotik formulatzen da. Ikuspegi kualitatiboari dagokionez, Plan honek etxebizitza-beharrizan desberdinak ditu abiapuntu, beharrizan bakoitzari egokituko zaizkion tipologia desberdinekin erantzun bat eskaintzeko. Planak etxebizitzaren arazoari eman beharreko erantzunak pertsonalizatu egiten ditu, aldi berean erantzun global egokia lortuz, beharrizana estaltzeko bide desberdinak erabiliz.
- ❑ Planak kezka berezia du etxebizitza lortzeko zailtasunik handieneko egoeran dauden pertsonetikiko, biztanleria-sektore horiei erantzun egokiak eskainiz.
- ❑ Jarduteko funtsezko esparruetako bat etxebizitza babestua alokatzeko politikak indartzea da, era horretan EAEn etxebizitza babestuen parke bat edukitzeko erabilera- eta gozamen-baldintza askorekin, eta formatu bakoitzean egokia den dimentsioarekin. Horretarako, etxebizitza babestu berriaren sustapenean alokairua nagusi izatea proposatzen da, baina era berean, eta ñabardura handiagoarekin gainera, alokairu babestura mobilizatutako hutsik dauden etxebizitzen kopurua handitzea proposatzen da.
- ❑ Hiri eraikiari balioa emateko ideia, Etxebizitza Bideratzeko Plan honen jardunen multzoa gidatzen duen beste elementu estrategiko bat da.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Testuinguru horretan, hiriaren birgaitzearen eta biziberritzearen bultzadak garrantzi berezia hartzen du, batez ere birgaitze integratuko areetan eta eremu degradatuetan, baita iraunkortasunaren eta energia-aurrezkiaren ikuspuntutik baliorik handiena duten birgaitze-jardunetan ere.

- Era berean, kalitatea, iraunkortasuna, lan-segurtasuna eta berrikuntza azalerazen dira Etxebizitza Bideratzeko Planaren jardun-ildoak biltzen dituzten kontzeptu gisa.
- 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planak, era berean, bere garapenerako, "etxebizitza babestuen parkearen kudeaketa integrala" kontzeptua erabiltzen du, eta horrela, etxebizitza babestuen eraikuntza handitzeko ideari etxebizitza babestuaren parkearen gizarte-funtzioa etengabe bermatzeko helburua gaineratzen zaio.
- Euskal erakunde publikoen ekimen desberdinen artean osagarritasuna eta koordinazioa bilatzea, baita herritarren etxebizitza-premien arretan esku hartzen duten agente publiko eta pribatu guztien lankidetzeta eta erantzunkidetasuna ere, Etxebizitza Bideratzeko plan honen beste funtsezko ideiak dira. Agente guztiek dagokien erantzukizuna bere gain hartu behar dute etxebizitzaren alorrean sortzen diren erronkei efikaziaz eta eraginkortasunez aurre egiteko, eta horien arteko koordinazioak lehentasunezkoa izan behar du.
- 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planean garrantzi handia duen beste gai bat, etxebizitza babestuaren parkean iruzurraren aurkako borroka areagotzea da. Aurreko planean esparru horretan izandako aurrerapen garrantzitsuen ondoren, jendea etxebizitza babestuen parkearen gizarte-funtzioaren garrantziaz jabetzeko eta iruzurrak detektatu eta zigortzeko ahaleginen helburua, epe ertainean, akats hori ezabatzea da.
- Azkenik, 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planak, lurzoru, hirigintza eta etxebizitzaren alorreko politiken plangintza eta exekuzioan parte-hartze sozial eta demokratikorako mekanismo berriak bultzatzeko erronka bere gain hartzen du. Herritarrek parte hartzeko eta eztabaidatzeko formula horiek Herritarren Parte-hartzerako Zuzendaritzarekin lankidetzan diseinatuko eta martxan jarriko dira, gizarte-sarearekin eta herritarrekin dauden harremanak indartzeko eta Sailaren eskumenen esparruan egiten dituzten ekarpenak eta proposamenak bideratzeko.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

B. JARDUTEKO ARDATZ ESTRATEGIKOAK

- 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planak hamaika ardatz estrategiko ditu, eta horiek, era berean, lau jarduteko esparru estrategikotan taldekatzen dira:

GIZARTEAREN ETA INGURUMENAREN ALORREAN IRAUNKORRA DEN HIRI BERRIAREN GARAPENA

1. ardatza: Etxebizitza babestua zabaltzeko ahalegin handia egitea, hala kopuruari nola tipologiei dagokienez.
2. ardatza: Etxebizitza berri babestuen sustapenean alokairuari lehentasuna ematea.
3. ardatza: Erantzunkidetasuna eta lankidetzaren etxebizitza babestuaren agente sustatzaile guztien artean.
4. ardatza: Eraikuntzaren kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza.

HIRI ERAIKIARI BALIOA EMATEA

5. ardatza: Birgaitzea eta hiri-eraberritzea
6. ardatza: Hutsik dauden etxebizitzak alokairu babestura mobilizatzea

HURBILEKO ARRETA, ETA PERTSONALIZATUA, ETXEBIZITZA ESKATZAILE ETA ERABILTZAILEEI

7. ardatza: Kalitatezko arreta eskaintzea Etxebideko erabiltzaileei
8. ardatza: Etxebizitza babestuen parkearen gizarte-funtzioa bermatzea
9. ardatza: Premia berezia duten kolektiboaren trataera espezifikoa
10. ardatza: Herritarrek erabaki hartzean parte hartzea

BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUK

11. ardatza: Beste Administrazio batzuen eskumenak, etxebizitzako eskumenari loturik